

“ ”

Artista bat librea da edo merkatuaren baitan ari da ekoizten?

Ekida kultur ekimen sozialista

Ekida arte sozialista batentzako eraikina aurkezten ari dira azken hileotan. Ez dute eraikinik ekidatu baina ari dira, adreiluz adreilu, artearen eta kulturaren gainean hausnarketa eta ekimenak abiatzen. Web-orrian artelanak, eztabaidak eta gogoetak artikulatuko dituzte, eta herriz herri ere ikuskizuna antolatu dute, poesia eta kantua uztartzen dituen *Manifestua*. Donostiako anfiteatroan topatu gara. Artearentzako espazio hustuan, soilik espektakuluz betetzen dena urtean pare bat aldiz. Bertan elkarriketatu ditugu etengabeko krisi ekonomiko batean hezitako belaunaldiko kide diren Nagore Arzallus Alustiza (Errezil, 1993) eta Paul Beitia Ariznabarreta (Getaria, 1997); Bertolt Brechten tradizioari jarraituz A anderea eta B jauna hemendik aurrera.

 XALBA RAMIREZ  DANI BLANCO

Nondik abiatu da Ekida?

A: Ekidaren sorrera azken urteotan Euskal Herrian garatu den Mugimendu Sozialistaren baitan kokatu behar da. Osotasun kapitalista eraldatzeko borondateak ekarri du gizarteko hainbat alderdiri eta problematikari tradizio sozialistaren ikuspegitik heldzea. Baita politika sozialista batean arteak eta kulturak zer funtzio betetzen duten aztertu nahia ere. Guk uste dugu langileok kulturalki ere azpiratuak garela. Esaterako,

gure garaiko industria kulturalaren bilakaera izugarria kontuan hartuta, horrek gure bizitzetan duen eraginari aurre egiteko inongo mekanismorik ez daukagu. Kapitalismoaren hegemonia erabatekoaren aurrean, langileok kulturaren esparruan ere independenteki antolatu behar dugula uste dugu.

Arte munduaren apatia apurtzeaz hitz egiten duzue. Zein da egun Euskal Herrian ikusten duzuen egoera?

B: Arteak mugimendu politikoekin eta politika sozialistarekin daukan loturaz hausnartzen ari gara. Arte oro da politikoa, baina bereziki interesatzen zaigu lotura hori kontzientea denean. Badira hamarkadak arte munduan egon diren dinamikak urrundu direla lotura politiko kontziente horretatik, Euskal Herrian ere bai. Artearen merkantilizazioaren joera gailendu da eta horren espresioetako bat da artistek bilatzen dutela norberak bere artea egitea, askotan oso ikuspegi indibidual eta pertsonaletik. Langileen mugimendu iraultzailearen porrot historikoaren garaian gaude. Horren ondorioz, gizartean despolitizazioa eta indibidualismoa gailendu dira, eta horrek artean ere badauka eragina. Ez dut esan nahi kritika soziala ikusten ez denik, baina guk harago joan nahi genuke. Arteak historikoki funtzio politikoak bete izan ditu politika sozialistarentzat, eta hori gaurtik eta hemendik berrabiatu nahi genuke.

“Arte sozialista bat, kosmobisio komunistari erantzungo diona”. Zerk definitzen du sozialista gisa artea? Artistak edo artelanak?

A: Artea prozesu sozial gisa ulertzen dugu eta, beraz, haren alderdi guztiak hartu behar dira kontuan: artistak, artelanak, baina baita hartzaileak, lan teknikoak eta abarrak ere. Guk kosmobisio komunistatzat ulertzen dugu langileria iraultzailearen kultura po-

litikoa. Gizarte kapitalista ulertu eta gaingintzeko markoa eskainiko duena, etika iraultzaile batekin. Arte sozialista kosmobisio komunista horren espresio estetikoak litzateke eta, era berean, baliabide bat kultura politiko iraultzaile horren erreproduktzioarako eta hedapenerako.

Zentzu horretan defini daitezke arte sozialista baten ezaugarriak?

B: Sozialista ez da modu nominalean ulertu behar. Kontua ez da artistak bere burua sozialistatzat izatea edo bere lanari sozialista deitzea. Sozialista izendapenak zentzurik badauka, zentzu politikoa izan behar du, funtzio politiko sozialista betetzea, hain zuzen. Horregatik, kontzeptu zabal gisa ulertzen dugu arte sozialistarena, ez diziplina bati edo genero bati edo irizpide formal batzuei lotuta, irizpide politikoei baizik.

Euskal Herrian diskurtso gehienek kontsumoaren gainean dihardute, batez ere pandemia hasi zenetik: kultura zenbat “kontsumitzen” den eta nola. Gutxiak hitz egiten dute zer ekoizten den eta nola. Zuek, ordea, ekoizpenaz hitz egiten duzue.

A: Guk ekoizpenaz zein kontsumoaz jardun dugu gizartearen baldintzen baitan. Arte sozialista antolatu behar den zer baiten gisa ikusten dugu. Arte oro dagoe-



lako antolatua, baina interes ezberdinei erantzunez. Egun, gizarte kapitalistaren baitan ekoizten eta kontsumitzen den artea, gizartearen beraren dinamikari erantzuten dion heinean, kapital meta-ketaren logikan antolatuko da. Adibidez, zein jendeak dauka sarbidea kulturara eta zein kultura motatara? Guk bitartekoak eskaini nahi ditugu antagonikoak izango den arte bat eraikitzeko: politika sozialistarentzat funtzio ideologikoak bete ditzakeen arte bat, ez dutena irabazi ekonomikoek eta interes pertsonalistek gidatuko, borondate kolektiboak baizik. Eta gure ustez hori bermatzeko modu bakarra antolakuntzarena da.

Bitartekoen artean kritikaren beharra azpimarratzen duzue.

B: Arazo handi bat dugu kritikarekin. Arte kritika zein kritika politikoarekin. Euskal Kultura dei dakiokkeen zerbait baldin badago, ez da batasunezko paradisu harmoniatsua, askotan proiektatu nahi den bezala, denok barku berean joango bagina bezala. Zeharkatuta dago gatazka politikoz, klase borrokaz eta ga-

tazka ideologikoaz. Kritika hori zailtzen duten elementu asko daude, baina behar eta zilegitasun hori ezinbestekoa da.

“ ”

Arteak historikoki funtzio politikoak bete izan ditu politika sozialistarentzat, eta hori gaurtik eta hemendik berrabiatu nahi genuke

Kapitalismoak merkantzia bihurtzen du dena. Artea beste merkantzia bat gehiago al da?

B: Hegemonikoki, bai. Kapitalismoaren esentzia da merkantzien ekoizpena, eta bizitza sozialaren alderdi guztiak eramaten ditu horra. Artea ere, oinarri sozial horren gainean sortzen den heinean, merkantzia da. Espresio gehienek logika

horren baitan funtzionatzen dute, eta horik kanpo aritu nahi duenari ere eragiten dio, nahita edo nahigabe. Gero eta gutxiago inporta du, adibidez, eduki artistikoak –ze biraketa musikal egin duen kanta batek edo ze berrikuntza formal dakarren nobela batek– eta askoz gehiago entzule edo irakurle kopuruak eta horren arabera sortzen den etekin ekonomikoak.

A: Pandemian asko ikusi da artearen legimititatea zeren baita definitu den. Zeinek izan du bere jarduna burutzeko eskubidea? “Profesionala” denak, hau da, merkatu logikan homologatuta dagoenak.

Kontraesan hori nabaria da arteaz bizi nahi duen artistarentzat. Arteaz bizitzeak erreproduzitu egiten baitu artearen merkantilizazioa zentzu guztietan. Artistaren lanak merkantzia gisa nola funtzionatzen duen, horrek baldintzatuko du ia beti artistaren lan baldintzen hobetzea.

B: Artista soldatapeko langile gisa finka-



tu da. Bukatu da guraso aristokraten seme-alaba den artista edo inkuso poeta bohemioa, gosez hiltzea berdin zaiona. Artistak bere burua langile gisa aldarrikatzen du “duin bizitze” hori “beste langileen” pareko jarritz. Baina zalan-tzazkoa da hori, batez ere krisi garaio-tan. Kontraesanak agerian geratu ziren greba kulturalaren kontuarekin; artista soldatapeko langilea bada, bere ekoizpe-na gainbalioaren dinamikari lotuta egon behar da eta ez ezinbestean funtzio so-zialari. Pribilegio moduko bat ere aldarrikatzen da artista batzuen kasuan, ba-dirudi funtzio sozial handiagoa betetzen dutela beste edozein langilek baino... Hala ere, interesgarria da lan-baldintzak hobetzeko lan sindikala areagotu izana. Baina norabide politikoa kapitalismoa-ren gainditzean jarri ezean, arazo bera-ekin egingo dugu topo beti.

Artea merkantzia harago ulertzen dituzten esparruak badaude Euskal Herrian: antzerki konpainiak, diskoetxe autogestionatuak (BideHuts edo Mukuru, zenbait aipatzeagatik), gaztetxe sareak...

B: Behar batzuei eta interes artistiko ko-mun batzuei kolektiboki erantzuteko eta aurre egiteko interesgarriak dira. Hala ere, guk ez genuke nahi Ekida artistek kudeatutako diskoetxea edo argitale-txea izatea –nahiz eta oso interesgarria den hori–, guk egin nahiko genukeena da arte sozialista sustatu, politika sozia-listarentzat funtzio ideologikoak beteko lituzkeen arte bat, eta horretarako balia-bideak antolatu.

A: Baliabideak zentzu zabalenean uler-tzen ditugu: aurkeztu dugun *Manifestua* ikuskizuna, editorialak, artisten arteko kontaktua... Baina baita ere artisten ar-teko kritika eta eztabaida sustatzea.

Arte proletarioak ikusgarritasuna lortu du azken urteetan diskurtso eta praktika minoritario batzuk zabaltzerako orduan. Proletario eta sozialista ez lirateke nahastu behar, ordea.

A: Bai, ez dago arterik kulturarik gabe. Proletalgoak bere arte espresioak garatu ditu historikoki, bere mundua ulertzeko eta bertan jokatzeko duen modutik abia-tuta. Trapa izan daiteke horren adibide garbia. Baina, ezin ditugu arte proleta-rioa eta arte sozialista berdindu. Kultu-ra proletarioa kapitalismoaren barnean kokatzen den heinean, erreakzionarioa izan daiteke eta eduki baztergarriak izan:

ideologia matxista, marko kapitalistatik harago pentsatzeko ezintasuna...

B: Horregatik da beharrezkoa tentazio obrerista batetik urruntzea eta ulertzea langileok ere kapitalismoaren produktu garela. Langileon bizimodua ez da iraul-tzailea bere horretan: gure ulerkerak, jokaerak, gizarte kapitalistak determi-natzen ditu. Politika sozialistak gizarte kapitalista gainditzeko du helburu, eta horrekin gure langile-izaera bera ere bai. Horretara bidean garatu behar da kultura politiko sozialista bat.

“ ”

Kultura proletarioa kapitalismoaren barnean kokatzen den heinean, erreakzionarioa izan daiteke eta eduki baztergarriak izan: ideologia matxista, marko kapitalistatik harago pentsatzeko ezintasuna...

XX. mendeko abangoardia mugimenduei lotuta ageri da arte konprometituaren eztabaida. Dadaistak, situazionistak, futuristak... Mugimendu komunistekin harreman zuzena izan dute, nahiz eta garapena erabat ezberdina izan. Horretatik ba al du zuenak?

B: Lehen begi kolpean, abangoardiek dirudite gizartetik gehien urrundu diren mugimenduak. Testuinguruan kokatu behar ditugu, klase borrokaren estadio oso zehatz batean garatu ziren, non hau-tua iraultzaren ala basakeriaren artean zegoen. Modernizazio politikoa eta ar-tistikoa lotuta joan ziren, hortik bi kon-tzientzia historiko indartsuenekin, ko-munismoarekin eta faxismoarekin, izan zuten lotura ere.

A: Garapen honek ere baditu bere kon-traesanak. Artista eta mugimendu artis-tiko horiek testuinguru sozial horretan sortzea ez da kasualitatea, baina garaia-ri erreparatzen badiogu, esan daiteke kasu askotan ez zela asmatu artistikoki ze-go-en grina iraultzaile hori –obren eduki iraultzailea, akademia eta diskurtso bur-

gesaren kontrako diskurtso erradika-la– proiektu politiko iraultzaile batean gauzatzen. Lotura zuzenaren falta ho-rrek, beste hainbat faktoreekin batera, esplika lezake nola praktika artistiko horiek asimilatu egin zituen gizarte ka-pitalistak.

B: Are, hain erradikalak ziren mugimen-du horiek gizarte kapitalistaren moder-nizazioan bete zuten papera: ideologia eta estetika postmodernistaren jaiotzan, diseinuaren sorreran... Guk horretatik gutxi dugula esango nuke. Guk ulertzen dugu gizarte aske bat antolakuntza po-litikoarekin eraiki behar dela, eta arte espresio horiek guztiak asimilatu bazi-ren izan zen politika horiek porrot egin zutelako.

Artearen independentziaren eztabaida izan zen oso presente hor. Mugimendu Sozialistaren baitan dagoen arteak ez al du arriskua Alderdiaren menpeko izan, eta urgentzia eta inportantzia nahastekoa?

A: Kurioso da artearen independentzia-ren eztabaida beti ateratzen dela lotura politiko kontziente batez ari garenean. Eta ez dela hitz egiten ea gizarte kapi-talista batean arteak independentziarik baduen ala ez. Artista bat librea da edo merkatuaren baitan ari da ekoizten? In-dependentziak ari garenean zertaz ari gara beraz?

B: Artistaren konpromiso politikoa ez da kanpotik inposatutako zerbait. Artis-ta sozialista da mugimendu politikoa-re-kiko atxikimendua beste edozeinek be-zala bere borondatez bere egiten duena, eta bere lana hortik pentsatzen duena.

Euskal Herrian belaunaldi guztiak itzultzen dira Ez dok Amairura modu batean edo bestean. Baina horretaz gain izan dira bestelako mugimendu eta ekarpenak arte politikoan. Musika munduan, hor ditugu euskal rock erradikala, hardcore eszena, esan ozenki 90 hamarkadan... Nola kokatzen zarete horien aurrean?

B: Asko lantzeko dauden esparruak dira guretzat horiek. Edonola ere, Ekida ez dator proposamen estetiko bat egite-ra, baizik eta proposamen politiko eta organizatibo bat egitera, arte sozialista horren garapena eman ahal izateko. Eki-da ez da artista talde bat, Ez Dok Amairu gisa. Ekimen bat da lanak antolatze-ko eta baldintzak jartzeko, esparru horiek politizatzeko. ●